

Errenteriako Txistulariak euskal irratia- ren hastapeneko izarrak

Koldo Ordozgoiti Juanenea

Z012ko martxoaren 2an laurogei urte bete dira Joseba Zubimendik eta Ander Arzelusek bultzatuta aineratu zenetik lehen Euskal Irratsaioa. Hor dugu euskal irratia- ren mugarría, egun horretan sortu zen euskarazko irratia, ez zen izan lehen aldia euskara uhinetatik hedatzen zela, baina irratsaio horrekin eman zitzaion hasiera euskarazko irratigintzaren bide oparoari.

Beste berrikuntza batzuk ez bezala, irratia garaian iritsi zen gurera, Euskal Herrira, eta beste hizkuntzen denbora bertsuan hartu zuen euskarak uhinen bidea. *“Irratia dela ta dabil gure euskera kuttuna, arranoa baiño erosoago, arranoa baiño kementsuago egaz dabilkigu”, idatzi zuen Ander Arzelus Luzearrek 1925an, egindako lehen emanaldien harira.*

Irratiaren garrantziaz hasieratik jabetuak ziren garaiko euskaltzaleak, baina bakarrik 1932ko martxoaren 2an gauzatu ahal izan zuten aukera hori, asteroko euskarazko programazioari hasiera emanez, Union Radio Donostian, garaian Euskal Herrian zen irratia bakarrean. Asteazkeneroko irratsaioa ordubeteko zen eta astero egin zuten, etenik gabe, are eta Errepublikako gobernuak 1934ko urrian debekatu zuen arte. Egin zituzten 137 emanaldi horietan dugu euskarazko irratia- ren sorrera.

Errepublikako eskumaren gobernuak agindutako etenak ez zuen euskal saioen amaia ekarri. Zubimendi, Luzear eta enparauek, jada ez Eusko Gaztediaren izenean, bere kasa baizik, irratian segitu zuten eta 1935aren hondarrean Donostiako Euskal Pizkundera elkar- tearen txapelpean irratsaioen berpiztea lortu zuten. Lehentxeago, Joseba Zubimendik 1935eko Donostiako arraun estropadak zuzenean eman zituen, euskaraz, kirol eta ikuskizun horren

lehen irratia emanaldian, eta 1936ko ekainean Ander Arzelus Luzearrek prestatutako metodoan oinarrituta irratia bitarteko euskara ikasteko eskolak emittitzen hasi ziren. Uztailaren 18an piztu zen gerra eta Euskadi matxinatu frankisten esku geratzeak, erbeste- ra bidali zuen aitzindari haiek abian jarri zuten euskarazko irratigintza, baina katea ez zen inoiz eten.

Joseba Zubimendik zuzentzen zuen Luzearren laguntzarekin Donostiako Union Radio bitartez hedatzen zen irratsaioa eta bertan hasi zen bere aitarekin batera *speaker* eta aktore moduan Amale Arzelus, euskal irratiko lehen emakume esatari eta aktorea. Amalek zortzi urte egin berriak zituen 1932ko martxoaren 16an irratian hasi zenean; bere aitak, Ander Arzelus Luzearrek idatzitako bakarrik- ketak eta elkarrizketak gauzatzen zituen mikrofonoaren aurrean, arrakasta handiarekin, irratiko izarra izateraino. Donostiako Eusko Gaztedik eman zion babesa irratsaioari, Gipuzkoako Aldundiak finantzazioa, Angel Lizarragak jendea eta behar zen guztia bilatzen zuen, Txomin Olanok eta Bruno Imazek zuzeneko musika jartzen zuten, pianoa joz.

Euskal irratsaioak arrakasta lortu zuen garaiko entzuleen artean, horren lekukoa dugu Estepan Urkiaga Lauaxetak irratsaioaren lehen urteurrenean idatzitakoa: *“Artzeluztar Amaletxu edonork darau bere abotsa entzun dogulako ez bein, sarritan baino. Zubimendi azkarra, Luzear eta abar geure adiskide egin dira. Eta zelan gero? Irratijaren bidez! Olakorik entzuteko bere!”*

Euskaltzaleen laguntzarekin gauzatu zen beti zuzenean egin behar zen irratsaioa. Garaian, hitza, abestia eta musika dena zuzen zuzenean gauzatu behar zen irratia- ren mikrofono aurrean. Eta mikrofonotik mintzatzen, gaur egunean sinestezina

litzatekeen harrigarritzko lagun taldea: Zubimendi eta Arzelus, 'Luzear', Joxe Ariztimuno 'Aitzol', Xabier Lizardi, Telesforo Monzon, Emeterio Arrese, Orixe, Hemandorena, Toribio Alzaga, Beorlegi, Basarri, Elbira Zipitria, Dunixi, Tomas Garbizu, Aita Donostia, Aita Migel Altzo, Jean Lafitte, Oxobi... saioko izarra izan zen Amale Arzelus umea eta hauekin batera emakume ugari, andrazkoak hizlari, abeslari, errezi-tatzaile, andereño mugimendu sortu berrikoak...

Eta hori gutxi balitz, punta puntako abesbatzak (bereziki aipatzekoa Gabirel Olaizolak zuzentzen zuen Eusko Abesbatza), txistulariak (Errenteriako txistulariak eta Isidro Ansorenaren taldea, bi aipatzearen), akordeoi eta trikitixa joleak, musika talde eta bakarlariak (Nicanor Zabaleta, harpajolea esaterako), bertsolariak (Basarri irratsaioen laguntzaile ohikoa izan zen, baina mikroetatik pasa ziren bertsolari zahar eta gazteak, Matxin Irabola senpertia edo eta Arizmendi-Atarrene donostiarra edo Joxe Mari Lopetegi irundarra, hiru besterik ez apaitzearen) bandak, musikariak eta musika joleak, eta Ramon Laborda apaizaren Poxpolina ume mugimenduaren babesa eta laguntza izan zuen irratsaioak.

Txistua eta eskusoinua ohikoak izan ziren irratsaioan eta horien presentzia nabarmena da

saioen ondoren egin ziren argazkietan. Irratsaioen "talde argazkiak" egitea Zubimendik eta Luzearrek sartu zuten beste berritasuna izan zen, bitxia bada ere horiek dira Euskal Herrian denbora horretan egin zen irratiaren argazki lekuko bakanetakoak, bakarrik ez esatearren.

Zubimendiren funtsean, Joseba Zubimendik egin zuen irratsaioen jarraipen dosierrean egun Koldo Mitxelena Kulturunean zaindua dena, gordeak dira argazkiak, horietako batean txalapartaren lehen irrati emanaldiaren lekukotasuna jasoa da. Lasarteko taldeak 1934ko martxoaren 14an egin zuen irratsaioari dagokio eta bertan berritasun moduan, txalaparta emanaldia eskaini zuten: *"Numero encantador y novedad deliciosa fue la "Txalaparta". Los hermanos Zuaznabar del caserío Sasueta fueron los ejecutantes. Con suma destreza y gran habilidad interpretaron con sus "makillas" una bella canción, haciéndose acreedores por su brillante ejecución de grandes muestras de simpatía como igualmente el gran irrintzilari Fernando Macazaga".* Kronikatik aparte, irrati estudioan jasotako argazkian, han atzean ikusi daiteke txalapartaren oholetako bat. Gisa horretako harribitxiz bete da, euskal irratiaren hastapenen benetako altxor kutxa den Joseba Zubimendiren funtsa.



Argia aldizkariaren irratsaioa, 1932-02-15. Argazkian: Ezeiza, Zugasti eta Kortajarena abeslariak. Isidro Ansorena eta bere txistulari taldea. Telletxea, Argiako zuzendaria. Enekotegi, apaiza eta kantaria. Joseba Zubimendi irratsaioaren speaker eta zuzendaria.



Lezotarren irratsaioa. 1932-2-22. Argazkian, Joseba Zubimendi, irratsaioaren speaker eta zuzendaria, bere semea Iñaki Zubimendi, mikrofonoari heldua eta Lezoko: Tomasa Iñarra, Candida Elustondo, Imanol Garbizu, Jon Garbizu, Reparaz apaiza eta tenorea, Liborio Garbizu, Tomas Garbizu musiko eta organista. Gezala anaiak, txistulariak.



Lasarteko irratsaioa. 1934-03-14. Irratsaioan partaide: "Euzko Batzokiko abeslari bikainak, Antonio Mercero abertzale eta abeslari handiak zuzenduak". Batzokiko antzerki taldea. Venancio Azkarate, soinu-jolea. Andoni Arozena hizlaria, Zuaznabar anaiak txalaparta joleak, Fernando Makazaga irrintzilaria. Ander Arzelus Luzear irratsaioaren speaker eta zuzendaria.

Zuzen zuzeneko irrati emanaldia

Euskal Irratsaioa asteazkenero, arratsaldeko zortzietan hasi eta bederatzia arte egiten zen, Joseba Zubimendik eta Luzearek diseinatu, mantendu eta zuzendu zuten. Eusko Gaztedik antolatzen zuen irratsaioan Angel Lizarragak jendea eta behar zen guztia bilatzen zuen, Txomin Olanok eta Bruno Imazek pianoaren bitartez jarraipena eta saioa gauzatzen zuten eta aipatu moduan, Luzearek eta Zubimendik, orduko hitzez esateko, *speaker* lanak egiten zituzten.

Ordubete horretan, hizlariak eramaten zituzten, txistulariak, bertsolariak, soinujoleak, olerki errezitatzailerak, abeslariak eta abar, Gipuzkoako herri guztietakoak, noizean behin Nafarroakoak eta inoiz Ipar Euskal Herrikoak, Hendaikoak esaterako. Errenteriakoak behin baino gehiagotan izan ziren bertan. Saioak ezinbestez zuzenean egin behar zirela kontuan hartuta, lan gaitza egin behar zuten arduradunek estudioan bertan ez ezik astean zehar ere, jendea inplikatzeko, saioak prestatzeko, parte-hartzaileak garaiz eramateko. Ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula, Joseba Zubimendik El Día egunkarian gaztelaniaz egindako elkarrizketa batean azaldu zuen moduan.

Irratsaioa astero berritu behar da eta ez da erraza zortzi egunen buruan artista berriak aurkitzea, arratsaldeko 8etatik 9etarako ordu bete hori betetzeko. Egia da inork gutxik egin diola uko parte hartzeari, baina, gauza batengatik edo besteengatik, azken orduko huts egiteak gertatzen dira. Eskaintza interesgarria lortzeko lan horretan, paper garrantzitsua jokatzen du Angel Lizarragaren eskarmentuak. Berari eta gure piano-jole ofizialari, Txomin Olanori eta konposatzaile eta pianista den Bruno Imazi zor diete eskertzea irrati entzuleek. Gutun ugari jasotzen ditugu Euskal Herri osotik animo emanenez. Asko Lapurdi eta Zuberoatik iristen zaizkigu, baita Ameriketatik ere, handik aipatzen digute gure emanaldiak, ordu diferentziagatik edo, goizeko hirurak direnean entzuten dituztela. Irrati entzuleek gogoan dute gure "speaker" Ander Arzelus eta bere alaba zoragarria, biak mutu azken aldi honetan aitaren gaixotasuna dela bide.

Hitzaldiak hamar minutukoak ziren, horrek batzuen kexa eragin zuen, hala nola Basarriena, laburregiak ziren bere iritziz. Ez dago emanaldien grabaziorik, bai ordea horietako aipamen ugari garaiko egunkari eta astekarrietan. 1934ko urrian, Errepublikako gobernuak emisioa eten zuenean, El Díak gogora ekarri zuen mikrofonoetatik pasatako lagunen zerrenda.

Raros fueron el Batzoki o la entidad musical vasca de nuestra ciudad o de los pueblos

comarcas que no hubieran colaborado en el éxito de estas manifestaciones de arte, de cultura y de vasquismo.

¿Quién no recuerda las agradables horas que nos proporcionaron los elementos del Batzoki Ulialde y también los del Antiguo, los de Pasajes de San Pedro y de San Juan, el grupo "Jostallu" de Donostia y los abeslari de los Batzokis de Irún y Rentería, de Oyarzun y de Hernani, de Andoain y de Lasarte e idéntico los de Ordizia? Hendaia, la amena ciudad del otro lado del Pirineo, hija también de Euskadi, acudió a estas reuniones de colorido vasquista.

Pero además han contribuido, entidades culturales y artísticas. Por ejemplo, las poxpolinas donostiaras que cumplidamente satisficieron los anhelos aún del exagerado peticionario. El Orfeón Vasco, o Eusko Abesbatza, que en la fiesta del centenario de estas emisiones dio un concierto notabilísimo desde el micrófono de Unión Radio instalado en el Gran Kursaal. También realizó un lindo programa la "Schola Cantorum", tan renombrada, de Pasajes, bajo la dirección de su maestro don Gelasio Aranburu, que por dos veces colocó muy alto el pabellón de las emisiones euskéricas. No fue menos feliz la actuación de la "Schola Cantorum" de Hernani, dirigida por don Jesús de Zubimendi.

Del gran número de artistas de renombre merecido que desfilaron por el micrófono de la emisora donostiarra, citaremos al gran bajo ernaniarra, director de la punjante masa coral "Eusko Abesbatza", don Gabriel de Olaizola, juntamente con el señor Lizarraga y los solistas del mismo Orfeón, el bajo señor Corjarena, el tenor Eceiza y las señoritas Embil y Zabalbeaskoa. También figuró la excelente cantante señorita Ana María Hernández y los excelentes solistas del Orfeón Donostiarra, los aplaudidos artistas Linazasoro y Aguirretxe.

Meritísimos antzeslaris también participaron en estas emisiones, entre los cuales se cuentan los afamados artistas Beorlegui y Eguileor, que hicieron pasar ratos inolvidables de contento y sana alegría a los numerosos oyentes.

Bertsolaris se presentaron muchos y buenos. Un botoncito de muestra, los conocidos Arizmendi, Arostegi y el popular "Azcoiti" de amenidad considerable. Así mismo los acordeonistas dieron siempre una nota destacable al par que entretenida. Fueron innumerables los que en la sesión vespertina de cada miércoles alegraban con sus festivas piezas musicales al público oyente.

No ha mucho, los radioescuchas euskeldunes tuvieron la fortuna de escuchar una emisión que dejó en todos vivo recuerdo. Fue aquélla en

Ateneo Guipuzcoano

Gran Concierto Vasco

*a cargo de valiosos elementos de
la Sociedad «Euzko Gastedia»*

Andrés Arzelus
Amale Arzelus
Buenaventura Ezeiza
Kortajarena
Josebe Enbil
Matilde Zabalbeaskoa
José Zubimendi

Quinteto Alzueta
Banda de Txistularis
de Rentería

MIÉRCOLES, 16 Mayo 1934.

A las siete y cuarto de la tarde.

P
R
O
G
R
A
M
A

que actuaron los animosos mutes del simpático pueblecito de Narvarte. La melodía de las hermosas dantzas baztanesas y del Ingurutxo de Leiza, interpretada por los Txistularis del citado rincón, causaron delicia suma. Era la misma reunión en que intervino el Padre Aguirre, entusiasta euskaltzale, dedicando una amena charla en castizo euskera.

También constituyó un fausto suceso la emocionante despedida de los txistularis de Rentería antes de partir para la capital de Méjico. Dieron un hermoso concierto que repitióse a su llegada de aquellas lejanas tierras, donde pusieron tan encumbrado el pabellón euskadiano. Y hablando de txistularis, digno es de destacar los magníficos conciertos que repetidas veces nos brindaron los celebrados txistularis donostiarras que dirige el maestro Ansorena. ¡Cuántos éxitos cosecharon las emisiones euskéricas!

De pianistas anduvieron bien las emisiones. Los que más se distinguieron fueron entre otros el compositor Bruno Imaz, el señor González, director de la Banda municipal de Hernani, como también el señor Garbizu, meritísimo organista de la iglesia parroquial de Pasajes de San Pedro.

Tantos fueron los triunfos obtenidos por estas emisiones, cada vez más brillantes y divertidas, y tales los artistas que en ellas tomaban

parte, que el Ateneo Guipuzcoano, como digno remate a las conferencias que sobre temas vascos en sus lujosos salones se pronunciaron, acordó solicitar a Unión Radio y a Juventud Vasca, organizadora de las emisiones euskéricas una emisión de carácter vasquista, en la que desarrollaron un excelente programa ante el micrófono instalado en su misma tribuna.

Errenteriako Txistulariak Euskal Irratsaioko izarrak

El Día egunkariko albistean azaltzen den moduan, Errenteriako Txistulariak irratsaioko izarrak izan ziren. Egindako emanaldiaz gainera, ugariak izan baitziren Euskal Irratsaioan Alexander Lizaso eta Pedro Lizardi buru zuten Errenteriako Txistularien emanaldiak, eta artikuluan aipatuta azaltzen diren Mexikora joan aurreko eta bueltatu ondorengo saioez gain, Errenteriako Txistulariak Euskal Irratsaioaren ekitaldi nagusietako txistu jole izan ziren.

Errenteriarrak Euskal Irratsaioan egindako emanaldien artean 1933ko ekainaren 10ekoa adibide moduan hartu dezakegu. Hona hemen, Luzearek zuzentzen zuen El Díako Euskal Orrian jaso zuten LXVII. Irratsaioaren kritika:

- **«Jaiki jaki»**, Quinteto Alzueta.
Salutación, por el conocido escritor euskérico Andrés Arkelus.
- **«Juramentuba»**, por el bajo Antonio Kortajarena.
- **«Kontrapas de Insausti»**, de D. L. de Urteaga, por la banda de Txistularis de Rentería.
- **«Alare»** de Mendi-Mendian, de J. M. Usandizaga, por el tenor Buenaventura Ezeiza.
- **«Kontrapas y Zortziko»** de Sorozábal, por el quinteto Alzueta.
- **«Lepoko gorri duna»** (La del pañuelo rojo), por el bajo Sr. Kortajarena.
- **«Semetxo»** poesía. Zubimendi.
- **«Nere jaiotegiko oian otsak»** de J. M. González Bastida, por la banda de Txistularis de Rentería.
- **«Arranoak bortietan»**, por el tenor Sr. Ezeiza.
- **«Bat-batean ta Oñabez»**, del P. Donosti, por el quinteto Alzueta.
- **«Juana Bixenta Olabe»**, duo por los Sres. Kortajarena y Ezeiza.
- **«Alkar Izketa»**, por el Sr. Arzelus y su hijita Amale.
- **«Urrundik»**, por la Srta. Josebe Enbil.
- **«Urretxindorra»**, por la Srta. Matilde Zabalbeaskoa.
- **«Itxasoan»**, por la Srta. Enbil.
- **«Andrea»** de Mendi-Mendian por la Srta. Zabalbeaskoa.
- Duo de **«Maitena»** y **«Xadin»**, de M. Colin, por las Srtas. Zabalbeaskoa y Enbil.
- **«Agur jaunak»**, por el quinteto Alzueta recitado por el speaker.

Acompañará al piano a los señores Kortajarena y Ezeiza, el popular pianista Txomin Olano; y a las señoritas Zabalbeaskoa y Enbil, la señorita Andone Aramberri.

“Txistulariak aitatu bearko aurrena. Batzaldi guzitan aurreneko saria eman oi dioten txistulari talde bikain oni onenbeste zor diogu, noski. Gorasarriren “Goizeresia”, Urteagaren “Kontrapasa” ta Olaizolaren “Erriko jaietan” entzunarazi zizkiguten. Nola? Hainbeste sari etxeratu arazi dizkien era berezian. Lizasoren jotzeko erreztasuna ez degu, esanak esan, bear baño gehiago goratuko.

Olaizolatar Pilare andereñoak, bere abots atsegin eta abeskerak egokiz liluratu gindun. Udalaizen “Nik badut maiteño bat”, Otañoren “Kunkun” ta Aita Donostiren “Urrexinola ta eria” berak abestu zituan arteraño entzun gabeak genitula iruditu zitzaigun, ain ederki abestu zitun. Abeskoren polita duzute errenderiar adiskideok.

Albisutar Nikanor, abotzolia ta Lizasotar Pilipa abespetia, lagun zarrak ditugu. Alare ez genun bigarrenaren abotsik oraindaño entzun ta oso gogoko izan zitzaigun. Guridiren “Mañaritik asita”, ta Udalaizen “Lili eder bat” eta “Gaztetasunak bainera bila” abestu zituan arek, eta onek Udalaizen “Argizariak zerutik” eta Almandozen “Txakur galdua”. Biok oso egoki.

Azkenik Litargik [Gillermo Lizasok] “Astuaren larritasunak” edestu zizkigun. Esale jator eta abeslari bikain, bertso zar errikoi batzuek oñarri zituela, orrialde ontatxe aurki

dezakezuten lantxoak irakurri zigun. Beti gazte gure “Litargi”. Ori izan zan errenderiarren asteazkeneko lana.”

Euskal Irratsaioan Erretereriako txistulariek izan zuten nagusitasunaren bi adibide ezin hobekak ditugu, arestian aipatutako Ateneo Guipuzcoanok programazioaren baitan 1934ko maiatzaren 16an egin zen euskal musikaren irratsaio berezian, Erretereriako Txistulariak jo zuten eta berdin gertatu zen Kursaalaren zuzenean egin zen Euskal Irratsaioaren 100. irratsaio berezian. 1934ko urtarriaren 28an, Kursaalera areto nagusia lepo beteta eta irrati bitartez Union Radio Donostiaz gain Radio Estudio Bilbao Bilbao Irradiotsa emisora bitartez zuzenean eskaini zen bi orduko zuzeneko emanaldi hartan, Eusko Abesbatzarekin batera, Erretereriako Txistulariak izan ziren nagusi.

Euskal Irratsaioak izan zuen berrizaletasun eta aitzindaritasunaren baitan, ez da harrizkoa han estreinatu izana, saio horretan kantatu izana, lehen aldiz irratiak, Alexander Lizasoren musika moldaketari zor zaion *Eusko Gudariak*, urteekin himno bilakatu den abestia. Horren lekukotasuna jaso dugu hemerrotekan, aldiz ez zaigu iritsi inongo argazkirik Erretereriako Txistularien eta oro har erreteriarren parte hartze Euskal Irratsaioan. Agian, baten batek izango horren oroitarik?



Errenteriako Txistulariak, 1927. Foto Marín.



Errenteriako Txistulariak Donostiako Konstituzio plazan, 1931.
Errazkin, Evaristo Goñi, Perico Lizardi, Alexander Lizaso. Foto Marín.



Errenderi'tar Erramon Aba

Lizaso'tar Phillipa'k irratiskiflex egindako Itzaldia.

Euzkotar irratizueiak: Gure ele edo izkuntza entzunaz bat, aditzen dezuten euzkaldunoi, nere agurrik xamur ta maitekorrena damaizuet. Euzkaltirrasayoak gertu ta emanaz, ainbat ordu eder ta aidi goxo igaro ataziaz, orrenbegte pozaldi eman dizkigun Donostiar Euzko Gastedia'ren deyarri, ezin entzungor egin; ezin lan onurakor onetan diardutenel gure laguntza ukatu; ta onela, eskera onekoak geranez emen gaituzute gaur Errenderiar'ok.

Nere arloari begira turik orde, ainbat izlari piz-

miércoles, 20 junio 1934

AYER, EN UNION RADIO

Despedida de los txistularis de Rentería de los radioescuchas euskeldunes

Una emisión de brillantez extraordinaria. - Charlando con Lizaso, el renombrado txistulari

Conforme oportunamente advertimos a nuestros lectores, anteayer lunes, celebróse la emisión euskérica semanal.

Un magnó acontecimiento musical de la vida y triunfos de la Banda renteriana.

Y en efecto. No nos costó muchos esfuerzos el lograrlo. Le manifestamos nuestro interés y él, todo amabi-